

“Bilbao Balioen Hiria – Robert F. Kennedy Spain Fundazioa” sarien oinarri arautzaileak

Bilbao Balioen Hiria Bilboko Udalak bultzatutako proiektua da, baina hasieratik herritarren lankidetzarekin eraikia eta garatua. Hirian partekatutako balioen esparru bat zabaltzea, babestea eta garatzea da proiektuaren helburua. 2018an onartutako Bilboko Balioen Agiriak hiria ezaugarritzen duten 17 balioak jasotzen ditu, eta balio horiek izan behar dute datozen urteetan Bilboren garapena gidatuko duten erreferentziak.

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da “Bilbao Balioen Hiria – Robert F. Kennedy Spain Fundazioa” sariketa arautuko duten oinarriak ezartzea, Bilboko Udalak urtero deitzen dituen “Bilbao Balioen Hiria Sariak” ekimenaren barruan. Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioarekin elkarlanean garatutako ekimen honen helburua da Giza Eskubideekiko, justizia sozialarekiko eta Bilboko Udalaren Balioen Agirian jasotako balioekiko konpromisoa sustatzea, ikusaraztea eta aitortzea gazteen artean.

Giza Eskubideen defentsan oinarritutako ikus-entzunezko lan baten sorkuntza sarituko da, gazteen adierazpen kritiko eta sortzailea bultzatuz eta hiri bidezkoago, inklusiboago eta kohesionatuago baten eraikuntzan duten inplikazioa sustatuz.

Bases reguladoras de los “Premios Bilbao Balioen Hiria - Fundación Robert F. Kennedy Spain”

Bilbao Balioen Hiria es un proyecto impulsado por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construido y desarrollado desde un principio en colaboración con la ciudadanía, por el que se pretende difundir, proteger y desarrollar un marco de valores compartido en la ciudad. La Carta de Valores de Bilbao, aprobada en 2018, recoge los 17 valores que caracterizan a la ciudad y que deben guiar el desarrollo del Bilbao de los próximos años.

1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA

La presente convocatoria tiene por objeto establecer las bases que regirán la concesión de los “Premios Bilbao Balioen Hiria – Fundación Robert F. Kennedy Spain”, en el marco de los Premios Bilbao Balioen Hiria Sariak, convocados anualmente por el Ayuntamiento de Bilbao. Esta iniciativa conjunta con la Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain tiene como finalidad promover, visibilizar y reconocer el compromiso de la juventud con los Derechos Humanos, la justicia social y los valores recogidos en la Carta de Valores del Ayuntamiento de Bilbao.

Se premiará la realización de una obra audiovisual centrada en la defensa de los Derechos Humanos, favoreciendo la expresión crítica y creativa de las personas jóvenes y su implicación en la construcción de una ciudad más justa, inclusiva y cohesionada.

2. DEIALDIA EGITEN DUTEN ENTITATEAK

Sariketa honako entitateek deitzen dute elkarlanean:

- **Bilboko Udala**, Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailaren bidez.
- **Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioa**, bi entitateen artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren arabera.

3. PARTE-HARTZAILEAK ETA KATEGORIAK

Deialdia 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta banaka edo taldean parte hartu ahal izango dute, gehienez bost pertsonako taldeekin proposamen bakoitzeko. Parte-hartzea garapen pertsonalaren eta hezkuntzaren etapa desberdinetara egokitzeko asmoz, bi kategoriatan ezartzen dira:

- **A kategoriatan:** 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.
- **B kategoriatan:** 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

Adingabeen kasuan, derrigorrezkoa izango da aitak, amak edo legezko tutoreak sinatutako baimena aurkeztea.

4. SARIAK

Kategoria bakoitzeko sari bat emango da:

- **A kategoriatan (14–17 urte):** Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioak talde irabazlea (gehienez 5 pertsona) Madrilen egingo den tailer batean parte hartzera gonbidatuko du. Tailer hori Fundazioak emango du, sormena eta Giza Eskubideak ardatz hartuta. Halaber, taldeak Donejakue Bidea osatzeko bidaia egingo du, ekainaren 21etik uztailaren 3ra gutxi gorabehera, Estatu Batuetako, Ukrainako, Mexikoko eta Espainiako hainbat hirietako gazteekin batera, betiere Giza Eskubideen ikuspegiarekin. Fundazioak bere gain hartuko ditu garraio-, ostatu- eta mantenu-gastuak. Gainera, taldeak garaikur edo plaka bat jasoko du egindako lanaren aitortzen gisa.

2. ENTIDADES CONVOCANTES

Los premios se convocan de manera conjunta por:

- El **Ayuntamiento de Bilbao**, a través del Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional.
- La **Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain**, en virtud del convenio de colaboración firmado entre ambas entidades.

3. PARTICIPANTES Y CATEGORÍAS

La convocatoria se dirige a personas jóvenes de entre 14 y 30 años, que podrán participar de manera individual o en equipo, con un máximo de hasta cinco personas por propuesta. Con el fin de adaptar la participación a las distintas etapas de desarrollo personal y educativo, se establecen dos categorías:

- **Categoría A:** dirigida a jóvenes de entre 14 y 17 años.
- **Categoría B:** dirigida a jóvenes de entre 18 y 30 años.

En el caso de las personas menores de edad, será imprescindible la presentación de una autorización firmada por el padre, madre o tutor o tutora legal.

4. PREMIOS

Se concederá un premio por cada categoría:

- **Categoría A (14 a 17 años):** la Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain invitará al equipo ganador (hasta 5 personas) a participar en un taller en Madrid, impartido por la Fundación, centrado en la creatividad y los Derechos Humanos. Asimismo, el equipo realizará un viaje para completar el Camino de Santiago, en fechas orientativas comprendidas entre el domingo 21 de junio y el viernes 3 de julio, junto con un grupo de jóvenes internacionales procedentes de varias ciudades en Estados Unidos, Ucrania, México y España, también con un enfoque en Derechos Humanos. La Fundación asumirá los gastos de transporte, alojamiento y manutención. Además, el equipo recibirá un trofeo o placa conmemorativa en reconocimiento a su labor.

- **B kategoria (18–30 urte):** Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioak talde irabazlea (gehienez 5 pertsona) Madrilén egingo den Giza Eskubideei buruzko tailer berezi batean parte hartzera gonbidatuko du. Halaber, taldeak bidaia egingo du Italiara, gutxi gorabehera asteburu bateko iraupenarekin, Giza Eskubideekin lotura berezia duten jarduerak egiteko eta leku esanguratsuak bisitatzeko. Fundazioak bere gain hartuko ditu garraio-, ostatu- eta mantenu-gastuak. Gainera, taldeak garaikur edo plaka bat jasoko du egindako lanaren aitortpen gisa.

Saria jasotzeko, pertsona sarituek banaketa-ekitaldira bertaratu beharko dute, behar bezala jakinarazitako eta justifikatutako arrazoirik ezean. Epaimahaiak deialdia hutsik geratzea erabaki ahal izango du.

5. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdian parte hartzeko, interesdunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Adierazitako bi adin-kategorietako batekoak izatea.
- Adinez nagusi diren parte-hartzaileek Bilboko Balioen Agiriarekin bat eginda egon beharko dute eskaera aurkezteko unean.
- Jatorrizko eta argitaratu gabeko ikus-entzunezko lan bat aurkeztea, Bilborekin lotura duena.
- Izena emateko inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztea, erantzukizun-adierazpena barne.
- Oinarri hauek eta ezarritako baldintzak espresuki onartzea.
- Adingabeen kasuan, legezko baimena aurkeztea.

6. LANEN FORMATUA ETA GAIA

Lanak ikus-entzunezko edo dokumental formako piezak izan behar dira, gutxienez 3 minutuko eta gehienez 6 minutuko iraupenarekin.

- **Categoría B (18 a 30 años):** la Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain invitará al equipo ganador (hasta 5 personas) a participar en un taller especial en Madrid, impartido por la Fundación, centrado en los Derechos Humanos. Asimismo, el equipo realizará un viaje a Italia, con una duración aproximada de un fin de semana, para llevar a cabo actividades y visitar lugares de especial relevancia vinculados a los Derechos Humanos. La Fundación asumirá los gastos de transporte, alojamiento y manutención. Además, el equipo recibirá un trofeo o placa conmemorativa en reconocimiento a su labor.

Las personas premiadas deberán acudir personalmente al acto de entrega para recibir el galardón, salvo causa justificada debidamente comunicada. El jurado podrá declarar la convocatoria desierta.

5. REQUISITOS DE PARTICIPACIÓN

Para participar en la convocatoria, las personas interesadas deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Pertenecer a una de las dos categorías de edad indicadas.
- Las personas participantes mayores de edad deberán estar adheridas a la Carta de Valores de Bilbao en la fecha de presentación de la solicitud.
- Presentar una obra audiovisual original, inédita y vinculada a Bilbao.
- El formulario de inscripción debidamente cumplimentado y firmado, incluida la declaración responsable.
- Aceptar expresamente las presentes bases y las condiciones establecidas.
- Aportar, en su caso, la autorización legal correspondiente si la persona participante es menor de edad.

6. FORMATO Y TEMÁTICA DE LAS OBRAS

Las obras deberán consistir en una pieza audiovisual o documental, con una duración mínima de 3 minutos y máxima de 6 minutos.

Gaia Giza Eskubideen defentsa aktiboan ardaztuko da, bai Bilbon girotutako kontakizun edo istorio orokor baten bidez, bai Bilboko Giza Eskubideen arloko pertsona edo kolektibo erreferente batean oinarrituta. Aurkezten den ikus-entzunezko narratibak Bilboko Udalaren Balioen Agirian (ikus 1. eranskina) eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako balioekin bat etorri beharko du.

Era berean, Robert F. Kennedyren ondarea jaso eta ikusarazi beharko du, eskubide zibilen defentsa aktiboa, aukera-berdintasuna, justizia, giza duintasuna eta herritarren inplikazioa azpimarratuz, gizarte bidezkoago eta demokratikoagoak eraikitze helburuarekin.

Sormena, mezuaren sakontasuna, kalitate teknikoa eta gizartea sentsibilizatzeko eta inspiratzeko gaitasuna baloratuko dira.

Aurkeztutako lanean erabilitako testua (ahozkoa zein idatzia) ele bitan (euskaraz/gaztelaniaz) egon beharko da. Aurkeztutako lan guztiek genero-ikuspegia txertatu beharko dute, eta hizkera ez-sexista erabili.

7. HAUTAGAITZEN AURKEZPENA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lanak Robert F. Kennedy Spain Fundazioaren webgunean eskuragarri dagoen inprimaki baten bidez aurkeztu beharko dira.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 17tik **apirilaren 24ra** izango da.

Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Izena emateko inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Egilearen erantzukizun-adierazpena, aurkeztutako lana originala dela, hirugarrenen eskubideak urratzen ez dituela eta, hala badagokio, bertan agertzen diren pertsonen irudia eta ahotza erabiltzeko beharrezko baimenak dituela adieraziz. Halaber, adierazi beharko da ez dagoela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako debeku-egoeretak batean.

La temática deberá centrarse en la defensa activa de los Derechos Humanos, bien sea a través de un relato o historia general ambientada en Bilbao o tomando como base una persona o colectivo referente en materia de Derechos Humanos de Bilbao. La narrativa audiovisual presentada deberá inspirarse y estar alineada con los valores recogidos en la Carta de Valores del Ayuntamiento de Bilbao (ver Anexo 1), y la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

Asimismo, deberá recoger y visibilizar el legado de Robert F. Kennedy, poniendo en valor la defensa activa de los derechos civiles, la igualdad de oportunidades, la justicia, la dignidad humana y la implicación de la ciudadanía en la construcción de sociedades más justas y democráticas.

Se valorará la creatividad, la profundidad del mensaje, la calidad técnica y la capacidad de sensibilización e inspiración social.

El texto (hablado o escrito) utilizado en la obra presentada deberá ser bilingüe (euskera/castellano). Todas las obras presentadas deberán incorporar la perspectiva de género y utilizar un lenguaje no sexista.

7. PRESENTACIÓN DE CANDIDATURAS Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Las obras deberán presentarse a través un formulario en la página web de la Fundación Robert F. Kennedy Spain.

El plazo de presentación de las candidaturas será del 17 de febrero al **24 de abril** de 2026.

En la solicitud deberá proporcionarse:

- El formulario de inscripción debidamente cumplimentado y firmado.
- Declaración responsable de la persona autora, en la que manifieste que la obra presentada es original, que no infringe derechos de terceros, y que dispone, en su caso, de las autorizaciones necesarias para el uso de la imagen y la voz de las personas que aparezcan en la misma. Asimismo, deberá declarar que no incurre en ninguno de los supuestos de prohibición establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

- Adingabeen kasuan, legezko ordezkariaren baimen espresua, parte-hartzea teknikoa zein artistikoa izan.
- Ikus-entzunezko fitxategia.

8. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Epaimahaiak honako irizpide hauen arabera baloratuko ditu aurkeztutako proposamenak, modu integralean eta haztatuta:

- **Sarien gaiari eta helburuei egokitzea:** Lanaren edukiaren eta deialdiaren xedearen arteko koherentzia maila baloratuko da, hau da, Giza Eskubideen ikusgarritasuna eta defentsa, eta Bilboko Udalaren Balioen Agirian jasotako balioen isla.
- **Ikuspegi original eta sortzailea:** Parte-hartzaileek Giza Eskubideen defentsa ikuspegi fresko, pertsonal eta eraldatzaile batetik aurkezteko duten gaitasun berritzailea sarituko da, pentsamendu kritikoa eta adierazpen artistikoa sustatuz.
- **Aniztasuna eta belaunaldien arteko inklusioa obran:** Piezak hainbat belaunalditako eragile, kolektibo eta pertsonen parte-hartzea edo ordezkaritza islatzea baloratuko da, aniztasuna eta belaunaldien arteko trukea sustatuz.
- **Kalitate tekniko eta narratiboa:** Bideoaren edo dokumentalaren exekuzio tekniko egokia baloratuko da (irudia, soinua, edizioa, erritmo narratiboa), baita mezuaren argitasuna, kontakizunaren egitura eta ikus-entzunezko lengoaiaren erabilera egokia ere, edukia eta inpaktua areagotzen duten heinean.
- **Inpaktu sozial, hezitzaile edo eraldatzailea:** Kontuan hartuko da lanak jendearengan hausnarketa, enpatia, kontzientzia kritikoa edo mobilizazioa pizteko duen ahalmena. Bereziki baloratuko da giza eskubideen alorrean sentsibilizatzeko tresna bihurtzeko gaitasuna izatea, hezkuntza-, gizarte- edo komunitate-testuinguruetan.

Epaimahaiak balorazio kualitatiboa edo kuantitatiboa esleitu ahal izango du irizpide bakoitzerako, ebaluazio objektibo, gardena eta proportzionala bermatzeko.

- Autorización expresa del/de la representante legal, exigida en caso de que la persona participante sea menor de edad, cualquiera que sea su participación tanto en la parte técnica como en la parte artística.
- El archivo audiovisual.

8. CRITERIOS DE VALORACIÓN

El jurado valorará las propuestas presentadas conforme a los siguientes criterios, que se tendrán en cuenta de manera integral y ponderada:

- **Adecuación a la temática y objetivos de los premios:** Se valorará el grado de coherencia entre el contenido de la obra y la finalidad de la convocatoria, esto es, la visibilización y defensa de los Derechos Humanos, así como la representación de los valores recogidos en la Carta de Valores del Ayuntamiento de Bilbao.
- **Originalidad y creatividad en el enfoque:** Se premiará la capacidad innovadora de las personas participantes para presentar la defensa de los Derechos Humanos desde una perspectiva fresca, personal y transformadora, fomentando el pensamiento crítico y la expresión artística.
- **Diversidad e inclusión intergeneracional en la obra:** Se valorará que la pieza refleje la participación o representación de una pluralidad de agentes, colectivos y personas de diferentes generaciones, fomentando la diversidad y el intercambio intergeneracional.
- **Calidad técnica y narrativa:** Se valorará la correcta ejecución técnica del vídeo o documental (imagen, sonido, edición, ritmo narrativo), así como la claridad del mensaje, la estructura del relato y el uso adecuado del lenguaje audiovisual para reforzar el contenido y su impacto.
- **Impacto social, educativo o transformador:** Se tendrá en cuenta el potencial de la obra para generar reflexión, empatía, conciencia crítica o movilización en el público. Se valorará especialmente su capacidad para convertirse en una herramienta de sensibilización sobre los Derechos Humanos en contextos educativos, sociales o comunitarios.

El jurado podrá asignar una puntuación cualitativa o cuantitativa a cada uno de los criterios, con el objetivo de garantizar una valoración objetiva, transparente y proporcional a los fines del certamen.

9. EPAIMAHAI

Epaiahia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 3. eta 20. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz eratuko da, eta Bilboko Udalak eta Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioak izendatutako ordezkariak osatuko dute. Halaber, Giza Eskubideetan, hezkuntzan, komunikazioan edo ikus-entzunezko sorkuntzan adituak diren pertsonak ere kide izan daitezke.

Epaiahiaaren erabakia gehiengo soilez hartuko da eta ezingo da errekurtsorik aurkeztu. Aurkeztutako lanek ezarritako irizpideak betetzen ez dituztela iritziz gero, kategoria bat edo gehiago hutsik gera daitezke.

Epaiahiaak oinarri hauek interpretatzeko eskumena izango du, beharrezkotzat jotzen denean, baita bere funtzionamendu-arauak zehazteko ere.

10. SARIEN BANAKETA

Sariak ekitaldi publiko batean banatuko dira, Bilboko Udalak antolatuta, Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioarekin lankidetzan, Bilbao Balioen Hiria sariak egitasmoaren barruan. Ekitaldiaren helburua da parte hartu duten gazteen talentua, sormena eta konpromisoa ikusaraztea eta aitortzea, eta belaunaldien arteko topagune bat sortzea, bizikidetzaren, giza eskubideen eta eraldaketa sozialaren balioen inguruan.

11. EGILE-ESKUBIDEAK ETA IRUDI-ESKUBIDEAK

Aurkeztutako lanek erabat originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Erabilitako musikak egile-eskubiderik gabekoa edo behar bezala lizentziatua izan beharko du, hau da, legeztutako erabilera-baimenarekin.

Parte-hartzaileen arduraz izango da aurkeztutako ikus-entzunezko piezek hirugarrenen eskubiderik ez urratzea (egile-eskubideak, irudi-eskubideak, jabetza intelektuala edo identifikagarriak diren pertsonen, marken, espazioen edo beste elementu batzuen eskubideak barne). Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango egile-eskubideen edo datu-babesaren arloan gerta daitezkeen arau-hausteen ondorioz.

9. JURADO

El jurado se conformará teniendo en cuenta los artículos 3 y 20 de la Ley 1/2022, de 3 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y estará compuesto por representantes designados por el Ayuntamiento de Bilbao y la Fundación Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain , pudiendo contar con personas expertas en Derechos Humanos, educación, comunicación o creación audiovisual.

El fallo del jurado se adoptará por mayoría simple de sus integrantes y será inapelable. Podrá declarar desierta cualquiera de las categorías si considera que las obras presentadas no cumplen con los criterios establecidos.

El jurado podrá interpretar las presentes bases cuando resulte necesario, así como determinar sus normas de funcionamiento.

10. ENTREGA DE PREMIOS

La entrega de los premios se celebrará en un acto público organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, en colaboración con la Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain, en el marco de los Premios Bilbao Balioen Hiria. El objetivo del acto es visibilizar y reconocer el talento, la creatividad y el compromiso de las personas jóvenes participantes, generando además un espacio de encuentro entre generaciones en torno a los valores de la convivencia, los derechos humanos y la transformación social.

11. DERECHOS DE AUTOR Y DE IMAGEN

Las obras presentadas deberán ser completamente originales e inéditas. La música que se use deberá ser libre de derechos de autor o música licenciada, es decir, con permiso de uso obtenido legalmente.

Será responsabilidad exclusiva de las personas participantes garantizar que la pieza audiovisual presentada no infringe derechos de terceros, incluyendo derechos de autor, derechos de imagen, propiedad intelectual o cualquier otro derecho vinculado a personas, marcas, espacios, elementos identificables u otros contenidos sujetos a autorización, licencia o cesión. La organización no se hace responsable de las posibles infracciones en materia de derechos de autor o protección de datos.

12. ADINGABEEN BABESA

Adingabeen kasuan, derrigorrezkoa izango da legezko ordezkariak sinatutako baimena izatea, bai parte hartzeko, bai aurkeztutako lanean haien irudia, ahotsa edo beste edozein datu identifikagarri erabiltzeko.

Deialdia egiten duten entitateek adingabeen babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatuko dute, eta beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartzeko eskubidea izango dute, hala nola aldaketak, anonimizazioa edo bestelako neurriak eskatzea, parte hartzen duten adingabeen eskubideak eta ongizatea bermatzeko.

Adingabeentzako baimen-eredu bat Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri, eta behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da, deialdian parte hartzeko dokumentazioarekin batera.

13. DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa – DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeei buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioa izango da izena emateko inprimakien bidez emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna; datu horiek bere webgunearen bidez kudeatuko dira osorik.

Datu pertsonalak deialdi honetako izen-ematea, parte-hartzea, hautagaitzen ebaluazioa eta, hala badagokio, sariak edo aitortpenak ematea kudeatzeko erabiliko dira, bai eta deialdiari lotutako komunikazioak egiteko ere.

Izen-ematearen eta parte-hartzearen kudeaketa, hautagaitzen ebaluazioa eta sarien ebazpena deialdia gauzatzearen eta parte-hartzearen arabera egingo dira. Irudiaren eta ahotsaren tratamendua, bai eta lanen eta lehiaketaren emaitzen zabalkunde publikoa ere, parte-hartzaileen baimenean oinarrituko dira. Adingabeen kasuan, aitaren, amaren edo legezko ordezkariaren baimena beharko da, oinarrietan ezarritako baldintzetan.

12. PROTECCIÓN DE MENORES

En el caso de personas menores de edad, será imprescindible contar con la correspondiente autorización firmada por su representante legal para la participación y la utilización de su imagen, voz o cualquier otro dato identificable en la obra presentada.

Las entidades convocantes velarán por el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de menores, y se reservan la facultad de solicitar modificaciones, anonimización o cualquier otra medida que resulte necesaria para garantizar los derechos y el bienestar de las personas menores participantes.

Un modelo de autorización para menores estará disponible en la página web de la Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain y deberá adjuntarse debidamente cumplimentado y firmado junto con la documentación de participación de la convocatoria.

13. PROTECCIÓN DE DATOS

De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 de abril, General de Protección de Datos (RGPD), y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (LOPDGDD), La Fundación Robert F. Kennedy Human Rights España, será la responsable del tratamiento de los datos personales facilitados a través de los formularios de inscripción, los cuales se gestionarán íntegramente desde su sitio web.

Los datos personales se tratarán con la finalidad de gestionar la inscripción, participación, evaluación y, en su caso, concesión de los reconocimientos o premios objeto de la presente convocatoria, así como para realizar las comunicaciones necesarias relacionadas con el desarrollo de esta.

La gestión de la inscripción y participación en la convocatoria, la evaluación de las candidaturas y la resolución de los premios se realizan sobre la base de la ejecución de la convocatoria y de la relación de participación. El tratamiento de la imagen y la voz, así como la difusión pública de las obras y de los resultados del certamen, se basará en el consentimiento de las personas participantes. En el caso de menores de edad, será necesaria la autorización del padre, madre o representante legal para la participación en el certamen y para el uso de la imagen y la voz, en los términos previstos en las bases de los premios.

Datu pertsonalak deialdia kudeatzeko behar den denboran gordeko dira, eta, ondoren, tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko lege ezarritako epeetan.

Parte-hartzaileek edozein unetan erabili ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak, Robert F. Kennedy Human Rights Spain Fundazioari zuzendutako eskaera baten bidez, indarreko araudian aurreikusitako baldintzetan. Datu-babesaren arloan beren eskubideak urratu direla uste badute, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (AEPD).

14. OINARRIEN ONARPENA ETA BESTE XEDAPEN BATZUK

“Bilbao Balioen Hiria – Robert F. Kennedy Spain Fundazioa” sarien deialdian parte hartzeko eskaera aurkezteak oinarri hauen onarpena dakar, espresuki eta osorik.

Era berean, parte-hartzaileek antolatzaileei lagatzen dizkiete lanaren irudiak eta edukiak komunikazio publikoan, erreprodukzioan eta banaketan erabiltzeko eskubideak, deialdiarekin lotutako komunikazio- eta zabalkunde-ekintzen esparruan. Lagapen horrek ez du inolako ordainsari ekonomikorik sortuko, ez eta oinarri hauetan eta emandako sariaren dotazioan espresuki aurreikusitakoez bestelako onurarik ere.

Los datos personales se conservarán durante el tiempo necesario para la gestión de la convocatoria y, posteriormente, durante los plazos legalmente establecidos para atender posibles responsabilidades derivadas del tratamiento.

Las personas participantes podrán ejercer en cualquier momento los derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y portabilidad de sus datos, mediante solicitud dirigida a la Fundación Robert F. Kennedy Human Rights Spain en los términos previstos en la normativa vigente. En caso de considerar vulnerados sus derechos en materia de protección de datos, las personas interesadas podrán presentar una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos (AEPD).

14. ACEPTACIÓN DE LAS BASES Y OTRAS DISPOSICIONES

La presentación de la solicitud de participación en la presente convocatoria de los “Premios Bilbao Balioen Hiria – Fundación Robert F. Kennedy Spain” conlleva la aceptación expresa e íntegra de estas bases.

Asimismo, las personas participantes ceden a la organización los derechos de comunicación pública, reproducción, distribución de las imágenes y contenidos de la obra en el marco de las acciones de comunicación y difusión vinculadas a la convocatoria. Esta cesión no generará en ningún caso derecho a remuneración económica ni a beneficio alguno distinto de los expresamente establecidos en las presentes bases y en la dotación del premio concedido.

1. ERANSKINA BILBOKO BALIOEN AGIRIA

Bilboko Balioen Agiriak balio indibidual eta kolektiboen gutxieneko izendatzaile komun bat identifikatzen du mantendu, babestu eta garatu beharreko bilbotarren ezaugarri gisa. Bilboko Balioen Agiria hiriko hainbat eragileren parte hartzearekin garatu zen eta 2018an Osoko Bilkuran onartu. Hiria ezaugarri diren 17 balioak biltzen ditu, datozen urteetako Bilboren garapena gidatu behar dutenak.

GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA

Bilboko biztanleak Giza Eskubideen adierazpen unibertsalean aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztien jabe dira. Eskubide horiek berdinak dira pertsona ororentzat, besterenezinak eta unibertsalak.

- Gure konpromisoa: Bilbon bizi diren pertsona guztien oinarritzko eskubideak errespetatzea, bermatzea eta sustatzea, pertsona guztiek - bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartu gabe- euren duintasunaren arabera bizi ahal izateko behar diren baldintza sozialak, ekonomikoak eta kulturalak bultzatuta.

JUSTICIA SOCIAL

Gure ustez, justizia soziala da ondasun sozialen bidezko banaketa lortzea, horrela pertsona guztien duintasuna eta gizarte-kohesioa bermatuko baitira gure urian. Premisa bat bete behar da horretarako, guztien ongia interes pribatuaren gainetik egotea.

- Gure konpromisoa: aberastasuna berriro banatzeko benetako eta behar besteko mekanismo eraginkorrak ahalbidetzea, oinarritzko askatasunak baliatu ahal izateko gutxieneko baldintza materialak bermatu daitezen.

ANEXO 1. CARTA DE VALORES DE BILBAO

La Carta de Valores de Bilbao identifica un mínimo común denominador de valores individuales y colectivos como seña de identidad a mantener, proteger y desarrollar. La Carta de Valores de Bilbao, elaborada de forma participada con numerosos agentes de la ciudad, y aprobada en Pleno en 2018, recoge los 17 valores que caracterizan a la ciudad y que deben guiar el desarrollo del Bilbao de los próximos años:

RESPECTO A LOS DERECHOS HUMANOS

Las vecinas y vecinos de Bilbao tienen todos los derechos y libertades proclamados en la declaración universal de los Derechos Humanos. Derechos que son iguales para todas las personas, inalienables y universales.

- Nos comprometemos a respetar, garantizar y fomentar los derechos fundamentales de todas las personas que viven en nuestra ciudad, promoviendo las condiciones sociales, económicas y culturales necesarias para que todas las personas, independientemente de sus circunstancias, tengan capacidad de vivir de acuerdo con su dignidad.

JUSTICIA SOCIAL

Entendemos la justicia social como la necesidad de lograr un reparto equitativo de los bienes sociales, asegurando así la dignidad de todas las personas y la cohesión social en nuestra ciudad. Exige como premisa la asunción de la preminencia del bien común sobre el interés privado.

- Nos comprometemos a posibilitar mecanismos efectivos reales y suficientes de redistribución de la riqueza para garantizar las condiciones materiales mínimas que permitan el ejercicio de las libertades básicas.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Gure ustez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna pertsonen duintasun unibertsalean oinarritutako balioa eta nazioarteko zuzenbidearen obligazioa da; gainontzeko oinarritzko eskubideen inspirazio-iturria ere bada. Berdintasunak esan nahi du diskriminaziorik ez egotea eta aukeretan eta baliabideetan ere berdintasuna egotea.

- Gure konpromisoa: emakumeak gizarteko eremu guztietan presentzia aktiboa izatea bultzatzea; emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunaren alde lan egingo dugu eta genero-indarkeriaren aurrean, 0 tolerantzia.

ELKARTASUNA

Gure ustez, elkartasuna da egoera bidegabeen aurrean gure urian erantzukizun partekatua izatea eta horretaz jabetzea.

- Gure konpromisoa: bidegabekeria-egoerei buelta emateko jardutea, egoera ahulean eta desabantailan dauden pertsonen edo taldeen alde eginda.

ANIZTASUNA ETA INKLUSIOA

Gure ustez, dibertsitatea/inklusioa da pertsonen arteko aldeak errespetatzea, euren orientazio eta nortasun sexuala, kultura, erlijioa, aukera ideologikoa eta politikoa, gaitasun funtzionala eta bestelako inguruabarrak zein-nahi izanda ere.

- Gure konpromisoak: aniztasuna ikusaraztea; inguru baztertzailerak ezerezteko eremu eta inguruabar guztietan; kultur arteko elkarriketarako eta aniztasunaren onarpenerako zeharkako proposamenak garatzea; sektore anitzen parte-hartzea eta inklusioa sustatzea; bereizkeria nola sortzen den erakustea, modu pedagogikoan; eta gure urian aurreiritziak eta estereotipoak elikatzen dituzten diskurtsoei aurre egitea.

IGUALDAD ENTRE MUJERES Y HOMBRES

Entendemos la igualdad entre mujeres y hombres como un valor fundado en la dignidad universal de la persona y una obligación del derecho internacional que la convierte en principio inspirador del resto de los derechos fundamentales. Implica no solo la ausencia de discriminación, sino también la igualdad de oportunidades y recursos.

- Nos comprometemos a fomentar la presencia activa de la mujer en todos los ámbitos de la sociedad; a trabajar por la corresponsabilidad entre mujeres y hombres; y a la tolerancia cero contra la violencia de género.

SOLIDARIDAD

Entendemos la solidaridad como el reconocimiento y la conciencia de una responsabilidad compartida en nuestra ciudad ante situaciones de injusticia.

- Nos comprometemos a trabajar por revertir las situaciones de injusticia mediante la actuación a favor de las personas o grupos que se encuentran en situación de vulnerabilidad, debilidad o desventaja.

DIVERSIDAD E INCLUSIÓN.

Entendemos la diversidad/inclusión como el respeto a la diferencia entre las personas con independencia de su orientación o identidad sexual, cultura, religión, opción ideológica, política, capacidad funcional o cualquier otra circunstancia.

- Nos comprometemos a visibilizar la diversidad; a eliminar los entornos de discriminación en cualquier ámbito o circunstancia; a desarrollar propuestas transversales de diálogo intercultural y de reconocimiento de la diversidad; a potenciar la participación e inclusión de sectores diversos; a mostrar, de modo pedagógico, cómo se produce la discriminación; y a hacer frente a discursos que alimentan prejuicios y estereotipos en nuestra ciudad.

KONPROMISOA

Gure ustez, konpromisoa da beste pertsona, instituzio, enpresa edo erakunde batzuen aurrean hartzen edo onartzen den betebeharra. Konpromisoa da gure uria osatzen duten pertsonak, banaka edo taldean, onartzen duten arduren multzoa, beren gaitasunak eta ahalmenak guztion ongiaren zerbitzura eta helburu kolektibo partekatuen zerbitzura jartzeko.

- Gure konpromisoa: baliabideak eta bitartekoak jartzea guztion ongiaren zerbitzura eta helburu kolektibo partekatuen zerbitzura, hortik datozen betebeharrak onartuz.

INGURUMENAREN ARLOKO JASANGARRITASUNA

Uste dugu ingurumenaren arloko jasangarritasuna gure uriko ekosistema epe luzean gorde ahal izatea bermatuko duten giza jardueren garapena dela. Horrek esan nahi du espazioak eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, hondakinak modu egokian kudeatzea eta ingurumena errespetuz tratatuko duten jokabideak sustatzea.

- Gure konpromisoa: ingurumenaren arloko arazoei buruzko kontzientzia hartzeko ekintzak bultzatzea; kontsumoko ereduak eta bizitzeko moduak aldatzea; gure uriko ekosistemaren inguruko jarrera arduratsuagoa, konprometituagoa eta solidarioagoa; baliabideen erabilera eraginkorrerako irtenbideak bilatzea eta gure urian daukan eragina murriztea.

ELKARBIZITZA

Beste pertsona batzuekin errespetuz eta tolerantziaz bizitzea da guretzat elkarbizitza. Urrian bizitzen jakitea. Horrek esan nahi du heziketa, gizalegea, adeitasuna eta begirunea erabiltzea eguneroko bizitzan, bai eta umeen, adinekoen eta, oro har, gure inguruan dauden eta behar gaituzten pertsona guztien ongizateaz arduratzea. Hori guztia aniztasuna, kulturartekotasuna eta tolerantzia erabiltza, eta hemen dauden eta etortzen ari direnen arteko irekiera eta harrera sustatuz.

- Gure konpromisoa: elkarbizitzarako espazioak sortzea, errespeturako eta gure inguruko pertsonen zaintzarako; eta gure urira etortzen diren pertsonak hartzeko espazioak.

COMPROMISO

Entendemos el compromiso como la obligación que se asume o contrae ante otras personas, instituciones, empresas o entidades. El compromiso es el conjunto de responsabilidades que asumen, individual y colectivamente, las personas que componen nuestra ciudad en orden a poner sus capacidades y posibilidades al servicio del bien común y de los objetivos colectivos compartidos.

- Nos comprometemos a poner nuestros medios y recursos al servicio del bien común y de los objetivos colectivos compartidos, asumiendo las obligaciones que de ello deriven.

SOSTENIBILIDAD MEDIOAMBIENTAL

Entendemos la sostenibilidad medioambiental como el desarrollo de actividades humanas que garanticen la preservación de nuestro ecosistema urbano a lo largo del tiempo. Implica el uso eficiente de espacios y recursos, la gestión adecuada de residuos y la promoción de conductas ciudadanas respetuosas con el medio ambiente.

- Nos comprometemos a impulsar actuaciones encaminadas a la toma de conciencia sobre los problemas medioambientales; el cambio de patrones de consumo y estilos de vida; una actitud más responsable, comprometida y solidaria hacia nuestro ecosistema urbano; y a la búsqueda de soluciones en el uso eficiente de los recursos y reducción de sus impactos en nuestra ciudad.

CONVIVENCIA

Entendemos la convivencia como una vida en compañía de otras personas desde el respeto y la tolerancia. Saber vivir en ciudad. Implica la educación ciudadana, el civismo, la cortesía y la amabilidad en la vida cotidiana, así como ocuparse del bienestar de la infancia, de las personas mayores y en general de todas las personas que nos rodean y necesitan. Y ello desde la diversidad, la interculturalidad, la tolerancia, la apertura y la acogida entre quienes están y quienes van llegando.

- Nos comprometemos a generar espacios de convivencia: espacios para el respeto y mutuo cuidado de las personas que nos rodean; y espacios para la acogida de las personas que se van incorporando a nuestra ciudad.

NORTASUNA

Gure ustez, gure ezaugarrien eta balio propioen multzoa da nortasuna. Nondik gatozen onartuz eta baloratuz: historia, kultura, memoria, tradizioak eta idiosinkrasia, baina nortasun hori aldatu egin dela eta aldatu egingo dela eta beste ezaugarri batzuk hartuko dituela jakinik. Ezaugarri horiek sortzailea, berritzailea, irekia eta kulturartekoa dela adierazten dute.

- Gure konpromisoa: gure nortasuna osatzen duten elementu kulturalak eta sozialak gordetzea. Aldi berean, sormenerako eta berrikuntzarako daukagun gaitasunetik datozen beste batzuk sartzea, eta gure urira etorri edo etortzen ari diren pertsonen ekarpenak sartzea.

ESFORTZUA

Gure ustez esfortzua hau da: proaktibitate eta profesionaltasunaren bidez, zailtasunak gaindituta, pertsonen, erakundeek, enpresek eta entitateek euren helburuak lortzeko erakutsi duten gaitasuna eta adorea. Horrek pertsona bakoitzaren exigentzia, iraunkortasuna eta ardura handia uztartzen ditu ilusioarekin eta borondatearekin, lorpen kolektiboak iristeko.

- Gure konpromisoa hau da: profesionaltasun eta esku zabaltasunetik abiatuta, uri bezala hobetzeari begira etorkizunean ipinitako helburuak lortzeko ahaleginak egitea.

ERANTZUNKIDETASUNA

Gure ustez erantzukizuna hau da: konpromiso eta betebeharrak partekatuak euren egiteko eta haien ondorioak onartzeko pertsonen, erakundeek, enpresek eta entitateek duten gaitasuna. Erantzunkidetasunak berekin dakar pertsonen eta entitateen denon onerako ekarpenak egin beharra.

- Gure konpromisoa hau da: auzokoen artean erantzunkidetasuna sustatzea; eta uriko erakundeek, enpresen eta entitateen arteko erantzunkidetasunerako egiturak eta prozesuak erraztea.

IDENTIDAD

Entendemos la identidad como el conjunto de rasgos y valores propios que nos caracterizan. Reconociendo y valorando de dónde venimos: historia, cultura, memoria, tradiciones e idiosincrasia, pero sabiendo que dicha identidad ha evolucionado y evolucionará incorporando nuevos rasgos que la definen también como creativa, innovadora, abierta e intercultural.

- Nos comprometemos a preservar aquellos elementos culturales y sociales que configuran nuestra identidad. También a incorporar aquellos otros que son resultado de nuestra capacidad creativa y de innovación, así como de la aportación de las personas que han pasado a formar parte o se van incorporando a nuestra ciudad.

ESFUERZO

Entendemos el esfuerzo como la capacidad y ánimo que las personas, instituciones, empresas y entidades han demostrado y demuestran para lograr sus objetivos, a través de la proactividad y profesionalidad, venciendo dificultades. Vincula la exigencia, la constancia y la dedicación de cada persona con la ilusión y la voluntad de alcanzar logros colectivos.

- Nos comprometemos a esforzarnos, desde la profesionalidad y la generosidad, en el logro de los objetivos de mejora que nos vayamos estableciendo como ciudad.

CORRESPONSABILIDAD

Entendemos la corresponsabilidad como la capacidad existente en personas, instituciones, empresas y entidades para asumir compromisos y obligaciones compartidas y aceptar sus consecuencias. Implica el deber de cada persona y entidad de aportar al bien común.

- Nos comprometemos a fomentar la corresponsabilidad entre vecinas y vecinos y facilitar estructuras y procesos para la corresponsabilidad entre instituciones, empresas y entidades de la Villa.

PARTE-HARTZEA

Gure ustez parte-hartzea hau da: entzunarazteko, erabakietan eragina izateko eta erantzunkidetasunez ekimenetan eta proiektuetan lan egiteko mekanismoen bidez, gure urian bizikidetza hobetzen laguntzea.

- Gure konpromisoa hau da: pertsonak parte hartzeko prozesuetan esku hartzeko erakartzea, egoerarik ahulenetan dauden kolektiboen inklusioaz sentiberatasun berezia izanik.

KONFIANTZA

Gure ustez konfiantza hau da: pertsonen jokamoldea zintzoa eta elkarlanean izango dela itxarotea. Gizatalde batzuk gizartetik baztertuta egotea indartu egiten duten aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiten die konfiantzak.

- Gure konpromisoa hau da: elkarrenganako konfiantza sustatzea, ezberdinen arteko elkarriketarako eta lankidetzarako espazioak sortuz; baita, sinesgarritasunari eta konfiantzari begira, gardentasunez eta egiazkotasunez jokatzeko ere.

SORMENA

Gure ustez sormena hau da: jakin-nahia eta pentsamendu kritikoa bezalako ahalmenak garatuta, zer edo zer originala sortzea. Berrikuntzaren garapenaren hastapenean dago, sormen-prozesuaren ezarpen praktikoa gisa.

- Gure konpromisoa hau da: sormena pizteko eta hori bideratzeko ingurune aproposa sortzea. Eta berrikuntzarako tresnak ematea, guztion onerako sormenezko alternatibak identifikatuz, proposatuz eta esperimentatuz.

PARTICIPACIÓN

Entendemos la participación como la contribución a la mejora de la convivencia de nuestra ciudad, a través de distintos mecanismos por medio de los que hacerse oír, influir en las decisiones y trabajar corresponsablemente en iniciativas y proyectos.

- Nos comprometemos a incorporar a las personas en los procesos de participación, con una especial sensibilidad en la inclusión de los colectivos más vulnerables.

CONFIANZA

Entendemos la confianza como la expectativa de que el comportamiento de las personas sea honesto y colaborativo. La confianza hace frente a prejuicios y estereotipos que refuerzan la exclusión de algunos grupos sociales.

- Nos comprometemos a fomentar la confianza mutua mediante la generación de espacios de diálogo y colaboración entre distintos, así como a actuar con transparencia y veracidad con el objetivo de posibilitar la credibilidad y la confianza.

CREATIVIDAD

Entendemos la creatividad como la capacidad de concebir algo original, a partir del desarrollo de competencias como la curiosidad o el pensamiento crítico. Está en la base del desarrollo de la innovación, como implementación práctica del proceso creativo.

- Nos comprometemos a generar un entorno propicio, capaz de estimular la creatividad y orientarla. Y facilitar palancas de innovación, identificando, proponiendo y experimentando alternativas creativas orientadas al bien común.

ZINTZOTASUNA

Gure ustez zintzotasuna hau da: bai pertsonen, bai erakundeen, enpresen eta entitateen jokamolde egoki eta ondratua. Lorpen horretarako gardentasuna nahitaezkoa da. Elkarrenganako konfiantza finkatzeko beharrezko elementutzat jotzen dugu zintzotasuna.

- Gure konpromisoa hau da: pertsonen, erakundeen, enpresen eta entitateen jokamoldean zintzotasuna finkatzea. Baita gardentasunaren kultura sendotzea ere.

ILUSIOA

Gure ustez ilusioa hau da: bizitzan jarrera positiboa edukitzea; guk hala gura badugu eta irmo jokatzuz gero, geure uria hobetu dezakegula sinestea, alegia. Grina sentitzea eta alaitasunez eta interes biziz uriaren proiektu kolektiboari ekitea; gainera, eremu eta arlo guztietatik ekarpenak egin ahalko dira proiektu kolektibo horretarako. Beste alde batetik, aurkezten zaizkigun hobekuntza-aukerez gogoia berotzea.

- Gure konpromisoa hau da: sormenezko ideietan eta proiektu berritzaileetan, baina batez ere errealtate eta lorpenetan oinarritutako ilusio, itxaropen eta baikortasun-giroa sortzea.

OSASUNA

Gure ustez osasuna hau da: gure urian bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzen duten aztura osasungarriak indartzeko bizimodu eta hiri-eredu egokiak geure egitea.

- Gure konpromisoa hau da: herritarren artean ohitura osasungarriak zabaltzea; dauden kirol ekipamendu, instalazio eta programak osatzea; elikadura eta ondo elikatzeak kultura hobetzea; eta osasunerako kaltegarriak diren substantzien kontsumoa murrizteko lan egitea.

HONESTIDAD

Entendemos la honestidad como el comportamiento adecuado y honrado tanto de las personas como de las instituciones, empresas y entidades. La transparencia se convierte en el elemento imprescindible para su logro. Se observa como elemento necesario para asentar la confianza mutua.

- Nos comprometemos a asentar la honestidad en el modo de actuación de las personas, instituciones, empresas y entidades. Así como potenciar la cultura de la transparencia.

ILUSIÓN

Entendemos la ilusión como una actitud positiva frente a la vida que corresponde a la firme creencia en que es posible mejorar nuestra ciudad gracias a nuestra voluntad y determinación. Sentir pasión y encarar con alegría y vivo interés un proyecto colectivo de ciudad en el que es posible aportar desde todos los ámbitos y sectores. Y entusiasmarse con las oportunidades de mejora que se nos presentan.

- Nos comprometemos a generar un clima de ilusión, esperanza y optimismo, basado en ideas creativas y proyectos innovadores, pero, sobre todo, en realidades y logros.

SALUD

Entendemos la salud como la adopción de un estilo de vida y un modelo de ciudad dirigido a potenciar hábitos saludables que mejoren la calidad de vida de las personas que habitan nuestra ciudad.

- Nos comprometemos a: extender hábitos saludables entre la población; completar los equipamientos, instalaciones y programas deportivos existentes; mejorar la nutrición y cultura alimenticia; y trabajar para la reducción del consumo de sustancias dañinas para la salud.